

Diputazioak eragozleak enplegatzeko asmoa gaitzetsi du enpresa batzordeak

«Kontzientzi Eragozpenaren Legearen zigorra bere egingo luke»

Gipuzkoako Diputazioaren enpresa batzordeak gaitzetsi egin du erakunde honek OZS bertan egiteko herrialdeko 50 eragozlerentzat egin duen eskaintza. Sindikatuen esanetan, Diputazioak «debaldeko lanpostuak izkututuz esklabutza sistema» jarri eta Kontzientzi Eragozpenaren Legearen zigorra bere egingo luke» plangintza honen bidez.

JOSE MARI PASTOR / DONOSTIA

CCOO, ELA, eta LAB sindikatuek Jose Antonio Santano Gipuzkoako Diputazioko Gazteri eta Kirol diputatuak arestian egindako eskaintza salatu egin zuten atzo KEM eta Kakitzat talde antimilitaristekin batera egindako prentsurrekoan. Langileen ordezkarien ustez, «honen bidez erakunde publikoak eskaintzen duen zerbitzuak, gizartearentzat baliozkoa bada, ordaindua izan behar du. Baliozkoa ez bada, orduan dena gezurra da eta kontzientzi eragozleak zigortzeko erabiliko dute».

Diputazioko enpresa batzordeak hiru arrazoi argudiatu zituen erakunde publikoaren jarrera salatzen: sindikalak —«lanpostu horiek ez badira ordaintzen esklabutza erregimenera bueltatzea izango litzateke»—, sozialak —«50 lanpostu horiek eragin negatiboa izan dezakete Gipuzkoako lan merkatuan, lehen herri bateko langabeteuek egiten zutena eragozleak egingo baitute dohainik»— eta politikoak —«OZSk soldadutzaren izpiritu militarista duelako. Bestela, lanpostu hauetan ariko diren gazteek sindikatzeko eta greba egiteko eskubidea izango dute?»—.

Talde antimilitaristen ustez, bestalde, Santanoren ekimena PSE-PSOE menpeko erakunde eta postuei egindako presioaren eraginez gauzatu da, honela gizarteak berak soldadutzaren kontra egonik eskaintzen ez di-



Sindikalistak eta antimilitaristak atzoko prentsurrekoan. GILLENEA

✓ **Gipuzkoako Diputazioaren kasua aurrekaria izanik, geroan udalek eta gauza bera egingo ez ote duten susmoa agertu zuten hizlariak.**

tuen OZSrako postu horiek be-raiek sortzeko. Diputazioaren jarrera aurrekaria izango ez ote den susmoa agertu zuten KEM eta Kakitzatek, gero udalek eta gainontzeko erakundeek ere berdin jokatzeko.

Erakundeko arduradunek ezer onartu dela ukatu arren, plangintza nahiko aurreraturik dago, sindikatuen arabera. Hondartzak garbitzea, informazio bulegoetan aritzea, ibai eta urtegiak zaintzea —«hauek, berez, Diputazioaren nominan dauden lanak»—, eta edadetuen laguntzaile ibiltzea lirake postu hauek, besteak beste.

Enpresa batzordeak egitasmo hau bertan behera utzi eta OZS egiteko posturik ez eskaintzeko eskatuko dio Diputazioari.

Larunbatean manifestazioa egingen dute Iruñean intsumisioaren alde

IRUÑEA


KEM eta Kakitzat talde antimilitaristek deituta, intsumisioaren aldeko manifestazioa izanen da datorren larunbatean Iruñean. Arratsaldeko zazpitan aterako da Gaztelu plazatik, eta dagoneko alderdi politiko, sindikatu, komunikabide, elkarte eta talde ugari adierazi dute beren elkartasuna mobilizazioarekin. Sakanako zenbait elkarte eta talde ere erakutsi dute aldeko jarrera.

«Intsumisioak kontzientzi preso eta preso politikotzat har ditzaten nahi dugu, eta Iparraldean gertatu dena hemen ere gerta dadin, han, Amnesty International elkarteak kontzientzi presotzat jo baititu espetxeratutako hiru intsumiso», azaldu zuen atzo Patxi Leone Kakitzateko kide eta hilabete honetan kartzela-

tik aterata den intsumisioak.

Era berean, Nafarroako udal guztiei dei egin zieten «intsumiso egin eta soldadutza zerrendarik ez ateratzeko». Epaiketak egiten diren modua ere salatu zuten. «Le-kukoen sarrera eta deklarazioa ukatzeaz gain, epaiketak oso azkar egiten dituzte», adierazi zuen Patxi Arana intsumisioak.

15 intsumiso daude dagoneko Iruñeko kartzelan, pasa den astean beste bi gazte atxilotu baitzituzten, Javier Bidaurreta eta Carmelo Zabalza, hain zuzen. Gainontzeko hamahiru presoak hauexek dira: Pablo Etxegarai, Fermin San Roman, Peio Amillano, Roberto Tofiño, Cesar Otxoaerrarte, Carlos, Iñaki eta Eduardo Lukin, Javier Aiestaran, Josu Berrio, Mixel Ormaetxea, Jose Luis San Miguel eta Unai Otegi.



HABEko langileak itxita

Euren lan egoeragatik protestan, Araba eta Bizkaiko HABEren Lurralde Ikuskaritzetan itxi ziren atzo HABEren euskaltegiako langileak. Bilbon goiz partean egin zuten itxialdia eta ordubetez egon ziren barruan. Gasteizen, ordea, bi alditan itxi ziren langileak: lehendabizi arratsaldean lan egiten dutenak goizeko 11.30-12.30ak bitartean egon ziren egoitzan. Ondoren, goizez lan egiten dutenak arratsaldeko 15.30etan hasi eta 16.30ak arte. Ostegun honetan, astean behingo lanuzteari jarraituko diote, eta egoerak hobera egiten ez badu, greba mugagabea hasteko aukera aztertzen ari direla azaldu zuten langileek.

HILDAKOAK

ARABA

- GASTEIZ Gorka Incognito Ugarte, 91 urte.
- AMURRIO Cesarea Landazuri Aldama, 95 urte.

BIZKAIA

- BILBO Antonio Perez Chico, 60 urte. Dolores Apalategi Urdangarin, 90 urte. Patxika Zabalgoitia Alejandre, 84 urte. Cosme Garcia Txarramendieta, 57 urte. Cristobal Pastor Rincon, 80 urte. Francisco Herrera Herrera, 63 urte. Maria Purificacion Valle Gorbea, 82 urte. Rosa Txaurrondo Landeta, 83 urte. Concepcion Milikua Bikuña, 70 urte. Maritxu Bilbao Goiri, 53 urte.
- ALGORTA Jose Manuel Cardenal Sagardui.
- ARKOTXA Jose Luis Uriarte Orbe, 61 urte.
- BASAURI Jenobeba Lizundia Ugarteitxe, 86 urte.
- BERRIATUA Hilario Sololuze Goigana, 67 urte.

- LEIOA Pilar Vaamonte Rodriguez, 49 urte.
- MUNITIBAR Maria Atxaerandio Martiegi, 88 urte.
- SANTURTZI Victoria Fernandez Nuñez, 94 urte.
- SONDIKA Florinda Fernandez Fernandez, 69 urte.
- URDULIZ Candida Izquierdo Vicente, 60 urte.
- URTUELLA Carmen Yecora Lorenzo.

GIPUZKOA

- DONOSTIA Juana Zubiaurre Gurrutxaga, 89 urte. Fermina Danborenea Arana. Tirso Etxauri Martinez, 91 urte. Pilar Gai Astigieta, 81 urte. Felisa Garitazelaia Amezu. Dolores Isasa Etxeberria, 91 urte. Antonio Sanz Carrillo, 82 urte.
- BILLABONA Jose Eguren Etxezarreta, 49 urte.
- ANDOAIN Maria Loiarde Zabala, 75 urte. Miguel Iriarte Saralegi, 79 urte.
- ARRASATE Carmen Armentia Murua, 64 urte.

- HERNANI Lucasa Martinez Izko, 87 urte.
- IRUN Jose Arretxe Errazkin, 66 urte. Maria Aduriz Berra, 85 urte.
- LEGAZPI Carmen Ibaseta Rodriguez, 74 urte.
- ORIO Patxi Zumeta Mendizabal.
- ZARAUZ Claudio Esnal Etxeberria, 83 urte.
- ZUMARRAGA Marcelino Landa Narbaiza, 78 urte.

NAFARROA

- IRUÑEA Vicente Aristu Maritorea, 61 urte. Cruz Vicente Osés, 68 urte. Pedro Juan Goikoetxea Ganuza, 65 urte. Vidal Calvo Gil, 75 urte.
- EZKIROTZ Angel Nuin Maraño, 58 urte.
- FITERO Santos Torrecilla Akerreta, 81 urte.
- MILAFRANGA Pablo Gorria Aranda, 81 urte.
- ZUBIRI Miguel Arana Navarro, 60 urte.

ESKELAK

ESKELAK HARTZEN DIRA:
ARRATSALDEKO

4ak ARTE: (943) 46 90 22